

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAGizarte Politiketako Sailburuordetza  
Gizarte Zerbitzuen ZuzendaritzaDEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALESViceconsejería de Políticas Sociales  
Dirección de Servicios SocialesIzena: Abizena 1 Abizena 2  
Kalea/ Izena, Z – solairua, hizkia  
NNNNN-Herria, TH

0011950123456789051101L939031371220

Jaun/Andre hori: Izen-Abizenak,

Jakinarazten dizut 2021eko abenduaren 31n elektrizitatearen bonu sozialaren onuradun izateagatik **2022ko Bonu Sozial Termikoaren onuradun zarela.**

Gizarte-bonu termikoa zuzeneko laguntza bat da, erabilera termikoetarako (berokuntza, ur bero sanitarioa edo sukaldea) energia-horniduraren gastuak konpentsatzeko. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio gastu horiek ordaintzea.

Dagokion laguntza hauxe da: **NNN,NN** euro

Zenbateko hori ordainketa bakar baten bidez ordainduko da, banku-kontu honetan:

**ESNN NNNN NNNN NN NNNNNNNNNN**

Zure datuak zuzenak badira, ez duzu ezer egin behar, ordainketa automatikoki jasoko baituzu banku-kontuan. Hala ere, **ordainketa aurreratu** ahal izango dugu kontu-zenbakiarekin ados zaudela jakinarazten badiguzu. Horretarako, edozein gailu elektronikotik (telefono mugikorra, tableta, ordenagailua) eskura daitekeen formulario elektronikoa du, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1112504>

Inprimaki horretan zure identifikatzailea (NAN/AIZ) eta erreferentzia-kodea sartu behar dituzu:

**NNNNNN**

Kontu-zenbakia aldatu behar baduzu, gutun hau jaso orduko, **10 egun balioduneko epean** egin beharko duzu. Horretarako, inprimaki elektronikoa helbide berean bete ahal izango duzu: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1112504> Halaber, bide elektronikoa erabiliz gero, ordainketa aurreratu ahal izango da.

Aurrez aurre egin nahi baduzu, gutun honekin batera jasotako banku-kontuaren komunikazioari buruzko **I. eranskina** bete ahal izango duzu, Zuzenean zerbitzuko bulegoetan (goizeko 8: 00etatik arratsaldeko 7:30era), udaletxeetan edo postetxean aurkeztuta.

Laguntzari **uko egin** nahi izanez gero, gutun hau jaso eta **10 egun balioduneko epean** egin beharko da. Horretarako, jasotako **II. eranskina** bete beharko duzu gutunarekin batera, eta Zuzenean zerbitzuko bulegoetan, udaletxeetan edo postetxean aurkeztu.

Informazio gehiago duzu gure web orrian, aurretik aipatutako estekan, 012 telefonora deituz edo [BonoSocialTermico@euskadi.eus](mailto:BonoSocialTermico@euskadi.eus) helbidera mezu elektronikoa bat bidaliz.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko azaroa

Maria Antonia Olabarrieta Ibarrondo  
GIZARTE ZERBITZUEN ZUZENDARIA